

Iragan beltz hura zapalduz



Aireportuan nengoen nire aitak mugikorrera deitu zidanean. Egia esan, ez neukan berarekin hitz egiteko gogo handirik, ezta bere sermoirik entzuteko ere, baina Joan baino lehen berarekin hitz egin behar nuela iruditu zitzaidan, ez bainuen bi hilabeteetan berriz ikusiko.

Jakin badakit, eta ondo gainera, gurasoen menpe bizi garela etxean bizi garen bitartean, baina dagoeneko 19 urte nituen, eta unibertsitatean nengoen erizaintza ikasten.

Betidanik amestu dudan bidaia egiteko ordua iritsi zitzaidan, nahiz eta gurasoei ondo ez iruditu. Saharara joango nintzen ONG batekin, eta gurasoek zoratuta nengoela pentsatu zuten. Noski, nola joango zen 19 urteko neska polit bat Saharara bi hilabetez? Nola joango zen horrelako neska bat basamortura? Herri guztiak galdetzen zuen berdina, kaletik lagunekin ibili eta ezin nuen kale osoa zeharkatu galdera bat bera ere entzun gabe. Nazkatuta nengoen polita izateaz, baina ni neu izan behar nintzela esaten zidaten lkerrek eta Amaiak, mutil lagunak eta lagun minak.

Gurasoek ez zuten ondo hartu, aitak batez ere. Zoratuta nengoela eta berak ez zidala zentimorik ere emango. Eta amak, ez zen berak nahi zuena, baina edozertarako prest egongo zela esaten zidan.

Ez nuen haien dirurik ukitu, bi urtetan zehar aurreztutakoarekin joango nintzen, eta amak eskainitako dirua ere atzera bota nuen.